

## Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU Munduko hizkuntza-leihoak

### HIZKUNTZA: FANGERA


Autoglotonimoa: fang. Nazioartean fang da terminorik erabiliena, baina badira beste termino batzuk ere: fangwe, mpangwe, pamue, pahouin, eta pangwe. Gaztelaniaz fangüé (Del Moral, 2002:195) eta fan terminoekin ere ezagutzen da (Moreno Cabrera, 2003:506-509).

### LURRALDEA ETA HIZTUNAK

*Fangera* hizkuntzaren inguruko informazioa kontrajarria da. Hizkuntzalari batzuk *fangera* Ekuatore Ginean, Kamerunen, Kongon eta Gabonen hitz egiten dela diote (Lewis, 2010; Ikuska, 2010). Beste hizkuntzalari batzuk, ostera, *fangera* hizkuntza Ginean eta Gabonen hitz egiten denari baino ez diote deitzen (Del Moral, 2002; Moreno Cabrera, 2003).

Askotan gertatzen den legez, kontua da batzuentzat *fangera* hizkuntza bera eta bakarra dela, bere dialektoekin, eta besteentzat, ordea, hizkuntza beregainen aurrean gaudela.

Ethnologuek ematen dituen datuen arabera, esaterako, Ekuatore Ginean 297.000 dira *fangera* hiztunak dira, Kamerunen 121.000, Gabonen 588.000 eta Kongon 8.000. Ikuskak, ostera, kopuru handiagoak ematen ditu: 390.000, 2.400.000, 480.000, 950.000, hurrenez hurren, eta beste 13.500 Santo Tomen.



Maparen iturria: Uranga *et al.*, 2008: 60

Goian dagoen mapan *fangera* hizkuntza Ekuatore Ginean eta Gabonen ikus daiteke, 3 zenbakiarekin markatzen den lurraldeetan. Ostera, *fangera* hizkuntza zabalagoa [http://maps.thefullwiki.org/Fang\\_language](http://maps.thefullwiki.org/Fang_language) webgunean ikus daiteke.

### HIZKUNTZAREN EGOERA

Fangarrak Sudanen hegoaldetik gaurko lurraldera migratu zuten antzina. Gaur Ekuatore Gineako populazioaren %75 dira, Kongokoaren %38, Gabonekoaren %33, Kamerunekoaren %23 eta Santo Tomekoaren %10.

*Fangerak* ez du estatus ofizialik hitz egiten den estaturen batean ere ez. Kamerunen ingelesa eta frantsesa dira hizkuntza ofizialak, Kongon frantsesa, lingalera eta kitubera, Gabonen frantsesa eta Ekuatore Ginean gaztelania eta frantsesa.

*Fangera* mehatxatuta dagoen hizkuntza da, eta gero eta gutxiago erakusten diete gurasoek seme-alabei.

*Fangera* idazteko alfabeto latindarra erabiltzen da, eta dagoeneko 1951.ean Biblia itzuli zen *fangerara*.

## **HIZKUNTZAREN SAILKAPENA**

*Fangera* hizkuntza Niger-kongoarra da, bantuarra. Halere, hizkuntzalari batzuentzat, *fangera* hizkuntza-multzoa da eta ez hizkuntza bakarra.

Badirudi fangtarrak Sudanen bizi zirenean ez zutela hizkuntza hau hitz egiten. Migrazioan zehar bereganatu dutela uste dute askok. Horrexegatik ditu bantuarrak ez diren beste hizkuntza askoren eragina, eta azpi-talde berezia osatzen du hizkuntza bantuarren artean.

*Fangerak* hainbat dialekto ditu, zeintzuen hiztunen artean elkar ulertzen diren, hala nola, buluera, betiera edo ewondoera, nahiz zenbait hizkuntzalarientzat hauek hizkuntza beregainak izan (Moreno Cabrera, 2003: 508-509).

## **HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK**

Bokal eta kontsonante ugari ditu *fangerak*. Hiru tonu dauzka, behekoa, ertaina eta goikoa. Izenak zazpi taldetan sailkatzen ditu eta talde bakoitza bereizteko morfema bana erabiltzen da. Adjektiboa izenaren aurrean jartzen da.

## **HIZTEGITXOA**

fokh/-boré, -bé, -tal, -né, -tan, -samé, nžañ gwal, oñwam, ébul, awôm  
1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 (Del Moral, 2002)

m'bolo, m'bolani, mbamba kiri, mbamba alu, akiba,  
*kaixo!* (*lagun bati*), *kaixo!* (*lagun askori, bati baino gehiagori*), *egun on!*, *gau on!*,  
*eskerrik asko*

y'o num vah?, ma kuh vay?, wa dzon ah dzeh?, ma kobe fang, ma kobe ki fang, ma wok fang, ma wok ki fang, ma djing wa  
*nola zaude?*, *nora zoaz?*, *zer esan duzu?*, *nik fangeraz hitz egiten dut, nik ez dut fangeraz hitz egiten, nik fangera ulertzen dut, nik ez dut fangeraz ulertzen, nik zu maite zaitut*

## **IDAZKIA ETA AHOTSA**

E kôa, Azô e be, Azô e be bi ye Nžame, Azô e be Nžame. E kôa, e be bi ye Nžame. Édo e figa bo mam mese, ñgur'ô žom zé boñé dia ke do. Édoe ñga bele ényiñ ézo é be éndendañ é bôr. Éndendañ za fê e zibe e si, figî zibe dé yebge dia zo. Môr a ñga sia, zvi na Jean, Nžame a ñga nye lôm. A ñga so ñganyie, akal e bôm fwé éndendañ, mben a dure bô bese mebun. S'émyen ne a be éndendañ, ñgî a ñga nžu bôm fwé éndendañ.

Iturria: <http://www.language-museum.com/encyclopedia/f/fang.htm>.

*Hasieran Mundua izan zen, eta Mundua Jainkoak egin zuen, eta Mundua Jainkoa izan zen. Gauza bera gertatu zen hasieran Jaungoikoarekin. Gauza guztiak izan ziren berak eginak, eta bera barik ezer ez litzateke egina izango izan den bezala. Berarengan zen bizitza, eta bizitza gizonen argia izan zen. Eta argiak iluntasuna argitzen du, eta*

*iluntasunak ez zuen ulertu. Bazen Jainkoak bidalitako gizon bat, Joan izenekoa. Berori lekukotza emateko etorri zen, argiari jarraipena emateko, gizon guztiek berarengan sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren lekukotza emateko izan zen bidalia.*

#### **ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK**

<http://www.dicts.info/1/fang.php>

<http://monefang.com/dico/dico.php>

<http://www.ikuska.com/Africa/Etnologia/Pueblos/Fang/index.htm>

#### **ERREFERENTZIAK**

Del Moral, R. (2002). *Lenguas del mundo*. Madrid: Espasa.

Lewis, M. Paul (arg.) (2009) *Ethnologue: Languages of the World. Sixteenth edition*. Dallas, Texas: SIL International.

Moreno Cabrera, J.C. (2003). *El universo de las lenguas*. Madrid: Castalia.

Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A. eta Ortega, A. (2008) *Hizkuntzak eta inmigrazioa – Lenguas e inmigración*. Bilbo: Ikuspegi – Amarauna - Unesco Etxea.

Wurm S. A. (2001). *Atlas of the World's Languages in Danger of disappearing*, Paris, UNESCO.

[www.ikuska.com/Africa/Etnologia/Pueblos/Fang/index.htm](http://www.ikuska.com/Africa/Etnologia/Pueblos/Fang/index.htm)

[www.language-museum.com/encyclopedia/f/fang.htm](http://www.language-museum.com/encyclopedia/f/fang.htm).

[www.ethnologue.com](http://www.ethnologue.com)